BIZITEGI ERAIKINA — HERNANI 12

D MAILA



Egilea eta data: Benito Olasagasti; 1879.

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1946ko bi jasodura atzeraeman (lehena pixka bat atzeraemana soilik eta bigarrena aurrez zegoen 1880ko teilatupe txapituladunaren berritze gisa). Harlanduzko fatxada. Behe oinean jatorriz bao bikoitza (gaur egun aldatua). Jatorriz proiektu komuna Hernani 10ekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturikoak izan ezik.